

Florentino Portu

Euskaldunon Egunkaria, 1992-06-09: 2.

Hondarribiaren zerbitzuan bizi izan den bere historialari nagusia zen Florentino Portu hil da 94 urte bete berriak zituela. Orain gutxi arte ikusi ahal izan dugu herrian, txapela buruan, ibilera prestuaz bere alabetakoren batekin; geroztik, falta zen herriko paisaian; orain joan zaigu, bizi izan den bezala, diskretasun haundiz.

Hondarribian jaio zen 1898.go maiatzak 25 zituela. Herriko eskoletan egin zituen lehen ikasketak, solfeo eta guzti. Herriko Musika bandan hartu zuten gazte asko, hamar urte zituelarik, eta Txistulari bandan hamaseirekin. Ordurako, hamairu urtez gero udaletxeko bulegoetan hasia zen lanean; hemeretzirekin izendatu zuten Idazkaritzako "Laguntzaile", gero "Meditagarri" eta urtetan Idazkari "Ordezko" bezela, erantzunkizun haundiko lanean, jarraitu zuen Don Serapio Mujika haundia Hondarribiako artxiboaren ordenamendua egitera etorri zenean. Eta honen ondoan ikasi zuen material historikoa sailkatzen eta idazkera zaharrak irakurtzen. Gogoan dut ni honeratu berrian herriko sendagile zen, eta den, Gamarra jaunak esan zidana: "Gizon honen jakintza egunen batean itzaliko dela pentsatzeak pena haundia ematen dit". Erretiro garaia heldu zitzaionean, ikerketari eskeini zion bere jakituri eta denbora guztia; bere eskutik pasa dira Hondarribiako historia luzeaz gorde diren agiriak eta baita Gipuzkoako Foru Aldundian eta Simankasen dauden asko ere. Hamasei tomo argitaratu eta gero, bere azken lan erraldoia Gipuzkoako Diputazioak eta Hondarribiako Udalak argitaratu zioten 1989 orain hiru urte: *Hondarribia: notas históricas y curiosidades (hasta 1969)*. 780 orrialdekoa. Bere sorterriko historia zahar eta berria bertan dago idatzia. Gizon langile eta zintzo honek bere herriari poz haundiz eskeini diona. Goian bego.